

noaua

**Agurtzane Solaberrieta
izango da hurrengo
alkatea**

**Berria Txapelketa:
Igandean Usurbilen,
Pagazpe eta Azpeitiko
Ilunpe, aurrez aurre**

**Igande arratsaldean
jaialdi akustikoa Sutegin**



Jon Ostolaza:

**“Kalean jotzeko, dultzainak
indarra ematen dio trikitixari”**



FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN DENETAZ ARDURATZEN GARA

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK



www.funerariagonzalez.es

**kanpokaldeko
dekorazioa!**

URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

ARATZ

zabaleta anaiak



30 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

Albiste iruditan

Euskaraz eta euskal errepublika aldarrikatuz hartu zuen diputatu kargua Mertxe Aizpurua Arzallusek

Maiatzaren 21ean eraberritu zizuten Madrilan, apirilaren 28ko hauteskundeen emaitzetatik sortutako Espainiako Gorte berriak; bai Senatua, baita Diputatuen Kongresua ere. Kongresuan kargua hartu zuen usurbildar batek: 2011-15 legealdian Usurbilgo alkate eta Udalbiltzako lehendakari izandako Mertxe Aizpurua Arzallusek.

EHBilduko Gipuzkoako zerrendaburuak azken hauteskundeetan Kongresuan lortutako eserlekurako kargua hartu zuen joan den astean. "Bai, hitza ematen dut legeak behartuta, Euskal Errepublika lortu arte". Hitzokin, euskaraz eta euskal errepublika aldarrikatuz hartu zuen diputatu kargua apirilaren 28ko hauteskundeetako emaitzetatik maiatzaren 21ean osatu zuten Madrilgo Kongresuan, Mertxe Aizpurua Artzallus usurbildarra. Bere hitzak, gainerako diputatu independentistenak entzunak izan ez zitezen ahalegindu ziren Vox-eko diputa-



Mertxe Aizpurua Espainiako Gorteetan, EH Bilduko gainerako ordezkariekin batera.

tuak, hanka eta esku kolpeen hotsekin. Kongresuko mahaia ez zuen eragotzi jarrera hau eta kargu hartze ekitaldiarekin aurrera segi zuten.

Giro honetan halere, irribarra galdutako gabe, bere ama hizkuntzan eta euskal errepublikaren aldeko konpromisoa berretsiz hartu zuen kargua Mertxe Aizpurua.

Bigarren usurbildarra

Madrilgo gorteetan

Gogoan izan, Kongresuan diputatu kargua hartuko duen bigarren usurbildarra izango da Mertxe Aizpurua. Aizpuruaen aurretik, Usurbilgo alkate izandako Xabier Mikel Errekondo ere diputatu izan zen Madrilgo Kongresuan Amaiur koalizioarekin 2011-15 legealdian.

Laburrean

Pentsio duinen aldeko bilkura

Usurbilgo Gure Pakeak, Santueneko Gure Elkarrekin eta Aginagako Arrate Elkarrekin deitutako hileroko mobilizazioa ostegun honetan egingo da, maiatzaren 30ean, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan.

Errigorako produktuen banaketa

Nafarroa hegoaldean ekoizitako kontserba zein arroz-loteak eskatu zituztenentzat oharra: produktuok NOAUA!ra heldu dira, beraz, bila pasa. Loteak biltzerakoan egin beharko dituzue ordainketak.

Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan

Hilabeteko azken ostiralarean ohikoa duen legez, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak elkarretaratzea deitu du. Maiatzaren 31n 20:00etan Mikel Laboa plazan. Olatz Lasagabasterren urtebetetze argazkia aterako dute.

noaUA

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaUA.eu ||| www.noaUA.eu

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Itxaso Orbegozo.

Publizitatea: Beatriz Alda, publizitatea@noaUA.eu


Banaketa: Iñaki Irastusta, Jon Galbete.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako: erredakzioa@noaUA.eu



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrerria!



Garazi Lizaso Manterola

Egunak puntualak zertarako?

Kezkatzen nau egutegian egunak markatu eta efemeride hutsal bihurtzeak. Isolatzeak. Finean, arduratzen nau euren izenak izanari gaina hartzeak. Bestela esanda, mamira jo beharrean, azalean geratzeak.

Larritzen nau martxoaren 8an eragile, sindikatu eta alderdi politiko guztiek lazo edo puntu morea ezartzeak, baina gainerako 365 egunetan hatzik ez mugitzeak. Horren adibide garbia da egunotan prentsan ateratzen berria: Irungo alarde ez mixtoak publikoki eskerrak

eman dizkie jasotako sosten-guagatik EAJri, PSEri eta PPri. Ondotik etorri dira alderdi politiko horietako partaideen erantzunak edo perlak “beti ukatu izan ‘gara gatazkari irtenbidea emateari’ buruz hitz egiteaz” edota “ez da matxista, ezta diskriminatzailea ere”.

(Auzo)lotsa.

Zertarako balio du martxoaren 8an kaleak betetzera edota grebara batzeak, baldin eta egunerokotasunean berdintasun politikak sustatzetik urrun, zapuztuko badituzte? Euren jarduna parekidea ez bada? Lan feminizatuak, erre-

sidentzietako langileak edota etxez etxeko laguntza zerbitzuak kasu, egoera prekarioan azpikontratatzan jarraituko badute? Alardeak ateratzen diren aldiro emakumeon* parte hartzea, kantinez izateaz gain, bermatuko ez badute? Alarde diskriminatzailea babesten jarraituko badute?

Politikoki zuzena izatea gauza bat da eta bestea gardena izatea. Ez du balio egun zehatz batzuetan, martxoaren 8an edota azaroaren 25ean esaterako, diskurtso bat izateak eta eguneroko praktikak, ekintzek, beste gauza bat

erakusteak. Aldiz, badirudi batzuentzat denak balio duela, baita hipokresiak ere.

Horrelakoetan pentsatzen dut egun puntaletatik harago egunerokotasuna elikatu eta baloratu behar dugula. Efemerideen gaitetik jardunak balioetsi behar ditugu, ezin dugu izena gurtu izanaz ahaztuta. Finean, ezin zaio azala gailendu mamiari.

Horrexegatik guztiagatik, eskerrak eman nahi dizkizuet egun hutsalak huts bihurtzetik urrun, egunerokotasunean diharduzuen guztioi. Biba zuek!

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Itxaso Orbegozo | Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | **Garazi Lizaso Manterola** | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

177 inskripzio Udajolasen, guztiak onartuak

Maiatzaren 13tik 23ra zabalik izan genuen lepearen baitan, 4-12 urte arteko 177 haur eta gazte txok izena eman zuten Udajolasen. 200 laguntzako lekua zegoenez, izen emate guztiak onartuak izan dira.

Ekainaren 13an, bilera

Izen emate epea itxita dagoeenez, une honetatik aurrera

epeaz kanpoko inskripziorik ez da onartuko. Izena eman duenak Udajolasen parte hartzeari uko egiten badio ez zaio dirua itzuliko. Udajolasi buruzko argibide gehiago, ekainaren 13an 17:00etan Sutegiko auditorioan deitu dugun informazio bileran emango dira. Udaleku irekiak uztailaren 3tik 30era, astelehenetik ostiralera, 9:30-13:30 artean.



Udajolas uztailaren 3tik 30era egongo da martxan.

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Udalbatza, funtzioetan

Maiatzaren 26ko hauteskunde egunaz geroztik, eta kide berrien kargu hartze egunera arte, funtzioetan izango dira udalbatza osatzen duten egungo alkate eta zinegotziak.

Ezingo dute osoko bilkuran hartu ohi dituzten erabaki gehiago hartu, legeak hala agintzen baitie. Horregatik, hauteskunde egunaren bezperatar aurreratu zuten izatez astearte honetan egitea egokitzen zen udalbatzaren osoko bilkura. Pleno gehiago ez da izango udalbatza berria osatu eta 2019-23 legealdia abiatu artean. Baina hainbat batzordeetako aktak onartzeko aukera dutenez, pleno formatua izango ez duen azken saio bat deituko dute hilaren 23ko plenoan berri eman



Ekainaren 15ean osatuko da udalbatza berria.

zutenez, maiatzaren 26ko hauteskunde ostean, alkate eta zinegotzi berrien kargu hartze ekitaldiaren bezperatan.

Datozen deialdiak:

- Ekainak 12, 18:00 Batzordeetako aktak onartzeko azken saioa.
- Ekainak 15: udalbatza berria osatu eta alkate zein zinegotzi

tzien kargu hartze ekitaldia.

Gainerako erakundeen osaerak:

- Ekaineko bigarren hamabostaldia: Gipuzkoako Batzar Nagusiak.
- Uztailak 2: Europako Parlamentua.
- Zubietako Herri Batzarreko hautagai berrien kargu hartze eguna zehazteke dago.

Usurbilgo Udalaren lan eskaintza

- Lanpostua: Lan kargak sortutako udal brigadako 2 peoi.
- Lanaldia: Osoa.
- Ezinbesteko-baldintzak: Eskola-ziurtagiria eta B gidatzeko baimena. Euskarazko 1. hizkuntza-eskakizuna.
- Eskaerak aurkezteko epea: ekainaren 7a, eguerdiko 14:30ak baino lehen.
- Froga praktikoa egongo da. Hizkuntza froga ere egongo da, titulua ez daukatenentzat. Udalaren webgunean argitaratuko dira noiz izango diren.
- Apuntatzeko: Lanbiden (difusioan jarriko da lan eskaintza) edo Udal erregistroan (Eskaera orriak egongo dira).
- Lan poltsa osatuko da eta sortutako lan karga eta ordezkapenak egiteko erabiliko da.

Aurrematrikulatzeko garaia Lanbide Heziketa osoan

Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketa

■ Aurrematrikulazio epea: ekainak 3-14.

■ Heziketa eskaintza:

-Oinarrizko Lanbide titulua sukaldaritza eta jatetxe arloan.

-Oinarrizko Lanbide titulua ile-apainketa eta estetika arloan.

■ Bete beharreko baldintzak: -15 (salbuespenez), 16, 17 urte izatea.

-DBH graduatua ez izatea (DBH3 egina izan edota salbuespenez DBH2 egina izatea).

■ Informazio gehiago:

lhi@usurbil.eus
943 360 465
olh.usurbil.eus

Usurbilgo Lanbide Heziketa

■ Aurrematrikulazio epea: ekainak 3-14.

■ Heziketa eskaintza:

-Erdi mailako zikloak: Administrazio Kudeaketako Heziketa Zikloa; instalazio elektriko eta automatikoak; mekanizazioak; bero sorrera instalakuntzak.

-Goi mailako sarbide ikastaroa.

-Goi mailako zikloak: Administrazio eta Finantzetako Heziketa Zikloa; Automatizazio eta Robotika Industrialak; Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa; Fluido Instalakuntzen eta Instalakuntza Termikoen Mantenua; efizientzia energetikoa eta eguzki energi termikoa.

■ Aurkeztu beharreko dokumentazioa: NAN, espediente akademikoa.

■ Informazio gehiago:

eskola@lhusurbil.eus
943 364 600/ lhusurbil.eus

Agur ekitaldia, Oriarte Institutuan

2. Batxilergoa amaitu eta ikastetxea utziko duten ikasleei agur ekitaldia antolatu die Usurbil eta Lasarteko Institutuak ostiralean (maiatzak 31):

■ 12:00 Zuzendariaren hitzak.
■ 12:05 Donna Apellanizen hitzaldia: "USE froga, aurrekoak eta ondorengoak emozioen ikuspuntutik".

■ 12:35 Argazki emanaldia.

■ 12:45 Titulu banaketa.

■ 13:00 Talde argazkiak, lunch-a eta photocall-a.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

ARRANDEGIA
PELLO

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

PUNTAPAX 7, 650 31 31 91 USURBIL

ORDUTEGI ETA
TELEFONO BERRIA!

EGIN ZURE ESKAERAK
WHASTAPP-ETIK!



Ugaldea lehengoratzeko esku-hartze programa

Gipuzkoako Foru Aldunditik 15.000 euroko diru-laguntza jaso du Usurbilgo Udalak, Ugaldeako industriagunea lehengoratzeko esku-hartze programa bat idazteko. 10.000 biztanletik beherako udalerriek eremu degradatuak lehengoratzeko esku-hartze programa egitasmoak finantzatzeko foru deialdiaren baitan izan da. Deialdi honetan, Udalak Ugaldea industriaguneari lotutako aipatutako programa gauzatzeko diru-laguntza eskatu zuen, “izan ere, programa hori idazteko aholkularitza tekniko kontratatze asmoa du Udalak, ingeniari, hirigintza, ingurumena eta ekonomiaren arloak uztartzen dituen aholkularitza, hain zuzen ere”.

Foru Aldunditik jasotako laguntza albiste ezinhobetzat jo du funtzioetan den Xabier Arregi alkateak, “izan ere, industriagune hori biziberritzeko eta bertako jabeek sortu berri duten elkartearekin eskuz esku elkarlanean aritzeko bultzada izugarria emango duelako”.

Gogoan izan, Usurbilgo Ugaldea Poligono Elkarte osatua dutela aipatu eremua



Foru Aldunditik jasotako laguntza albiste ezinhobetzat jo du funtzioetan den Xabier Arregi alkateak.

XABIER ARREGI

“Industriagunea biziberritzeko eta bertako jabeek sortu berri duten elkartearekin eskuz esku elkarlanean aritzeko aukera eskainiko du”

biziberritzeko bertako hainbat jabeek. Elkarte honen, bertako jabeen eta Udalaren arteko elkarlana sustatuz garatuko da. Egitasmo honen baitan, industriagunea berronertzeko eta egungo parametroetara egokitzeko irizpideak zehaztea aurreikusten da; Eusko Jaurlaritzako Industrialdeetarako Renove Plana-Urbanizazioa

laguntza programan parte hartzeko urbanizatzeko jarduerak zein diren identifikatzea; egungo egoeraren eta urbanizatzeko jardueren aurreproiektua lantzea; jarduerak programatzea eta jardueren balorazio ekonomikoa.

Helburua, zonaldea txukuntzea

Udaletik ohartarazi dutenez, aparteko saiakera egin da 60. hamarkadan sortutako industriagunean. “Industriaguneak hirigintza-kudeaketan hasieratik hainbat arazo izan zituen, eta denboraren poderioz ondorioak areagotzen joan dira, esaterako: urbanizazioaren egoera

eskasa eta udalak jaso gabea, ekarri dituen mantenu arazoekin; ibaiari bizkar garatutako jarduerak, hainbat eraikinen eraikuntza-kalitate baxua...”.

Argi dio Udalak, “asmoa ez da industriagune berri bat egitea, zonalde degradatu bat txukuntzea baizik, bertako jarduera ekonomikoa baldintza onetan gara dadin”. Arregik nabarmentzen duenez, kokagune estrategikoa du Ugaldeak jarduera sozioekonomiko berriak erakartzeko potentzial handia izan dezake. Gai hau herri interesekoa dela ondorioztatzen du, “interes kolektiboa du, eta herri osoari egingo dio mesede”. Horregatik, aurrera begira, udalaren eta jabeen arteko elkarlanean sakontzen segitzeko deia egin du.

Azken hamarkadetan industriagunea eraberritzen saiatu arren, “ez da helburua lortu, eta egunetik egunera egoera okertuz joan da. Beraz egungo egoera kezagarria da. Dekadentzian dagoen industriagune baten aurrean aurkitzen gara, non benetako eraberritze baten aldeko neurririk hartu ezean, atzera buelta gabeko prozesu batean sartzeko arriskua dagoen etorkizun hurbilean”.

Udal diru-laguntzak, behin betiko onartuak

Usurbilgo Udalak behin betiko onartu ditu 2019rako udal diru-laguntzak. Guztira ia 172.000 euro banatuko ditu eremu ezberdinetan.

Gizarte zerbitzuen arloko-

tan (11 elkarte eskatzaile, 12.000 euro); deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko diru-laguntzak (eskaera bat); igogailuak instalatzeko laguntzak (3 eskae-

ra, 2.700 euro guztira); 2019ko kirol egitasmoak burutzeko norgehiagoka erregimeneko dirulaguntzak (16 eskaera, guztira ia 53.000 euro); norgehiagoka erregimenekoak ez direnak (9 eskaera, 6.500

euro inguru); ingurumenekoak (11 eskatzaile, ia 3.000 euro); nekazaritza eta abeltzaintzakoak (10 eskatzaile, ia 11.500 euro); kulturakoak (25 eskatzaile, ia 78.400 euro).

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ETXETRESNEN
KONPONKETAK
eta SALMENTA

MARKA GUZTIAK
azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA

645417665
XABIER Usurbil

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Patrimonia
laxetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera

943 362725 · 688 690 361

“Igande honetan proposamen berriak ezagutzeko aukera aparta izango dugu Sutegin”

Igande honetan, jaialdi akustiko baten aterpe izango da Sutegi. MusikaZuzenean web orriak antolatu du jaialdia, Haraneko lokaletako musika taldeekin elkarlanean. Ekimenari buruzko xehetasunak eskaini dizkigute Antton Aranburuk eta Koldo Otamendik.

NOAUA! Musikazuzenean.com agenda funtzioa betetzen duen web orrialdea da. Noiztik dago martxan?

Koldo Otamendi. Duela bederatzirte jarri genuen martxan eta gabezia batetik sortu zen. Kontzertuen berri jakiteko ez zegoen sarean inolako web orriarik. Baziren egunkariak, baziren agendak zituzten irratia programak, baina ez zegoen kontzertuen deialdiei toki egiten zien web orrialde propio bat.

Musikari, argazkilaria, bideo-gile eta eszenako jende bat batu ginen eta horrela hasi ginen lanean. Edonork bere informazioa bidali dezake eta guk lau haizetara zabaltzen dugu. Hori da musikazuzenean.com web orrialdearen ideia nagusia.

Web orrialdea kudeatzeaz gain, bestelako ekimenak ere sustatzen dituzue, ezta?

K. O. Gauza pila bat egin ditugu urte hauetan. Mahainguruak, argazki erakusketak, solasaldiak... Musika saio bat ere jarri dugu martxan, Hamaika Telebistarekin elkarlanean. Eta



Koldo Otamendik eta Antton Aranburuk eman dizkigute igandeko jaialdi akustikoari buruzko azalpenak.

IGANDEAN JAIALDI AKUSTIKOIA SUTEGIN

“Formatu ezberdina da, goxoa, erakargarria, gauza berriak deskubritzeko aukera ematen duena”

azken urteotan stand bat ipini ohi dugu Durangoko Azokan.

Igande honetan jaialdi akustikoa antolatu duzue Sutegin. Hau ez da ekimen berri bat, ezta?

K. O. Lehenbizikoa Elorrioren egin genuen, web orria martxan jarri eta urtebetera edo. Formatu txikiko kontzertuak egiteko xedez hasi ginen jaialdi akustikoak antolatzen. Bakar-

ka ari den jendea plaza goxo bat eskaintzeko eta entzuleei gauza berriak ezagutzeko aukera emateko.

Egitaraua oparora da. Nola egin duzue aukeraketa?

K. O. Aukeraketa egiteko orduan, 30eko zerrenda bat izan dugu mahai gainean.

Antton Aranburu. Horrek esan nahi du Gaztean jartzen ez dituzten talde asko daudela. Bestetik, neska-mutil arteko oreka bat dago kartelean.

K. O. Ez da baldintza bat baina saiatu gara oreka bat lortzen. Formatu ezberdina da, goxoa, erakargarria, gauza berriak deskubritzeko aukera ematen duena.

“Haraneko musika taldeok ez dugu kontzertuetarako toki egokirik”

NOAUA! Gaztetxerik gabe, rock kontzertuetarako badago gabezia bat Usurbil-en, ezta?

Antton Aranburu. Haraneko musika taldeok ez dugu kontzertuetarako toki egokirik. Sutegi bakarrik dugu eta muga bat da. Zine areto bat da, eserita ikusteko... Hitzaldietarako eta pelikuletarako funtzionatzen du baina ez da kontzertu areto bat. Dena den, jaialdi akustiko honetarako egokia da.

“Kantari bakoitzak bi abesti joko ditu”

NOAUA! Zein da jaialdi akustiko honen helburua?

Koldo Otamendi. Formatu txikian ari direnei erakuslehoi bat eskaintzea. Proposamen bateranoak eta sortu berriak uztartzeko ditugu. Kantari bakoitzak bi abesti joko ditu eta kontzer-

tuak bi orduko iraupena izango du. Baina kontzertuaren erdian atsedendaldi bat egingo dugu, trago bat hartzeko.

Harrobi lana ere egiten du jaialdi honek, ezta?

K. O. Gauza berriak deskubri-

tzeko jaialdia da. Adibidez, duela bi urte Olatz Salvador aritu zen eta orduan ez zuen inork ezagutzen; orain bate-tik bestera dabil gelditu gabe. Gauza bera Izaki Gardenak, Amorante eta beste kantari batzuekin.

Ekainak 2 igandea

■ 19:00etan, Sutegin.

■ Partehartzaileak: Abereh, Montauk, Paxkal Irigoyen, Gartxot, Serge, Natali, Birkit, Sara Zozaya, Ane, Larra Bideak, Raitx, Asier Beramendi.

■ Sarrera, 10 euro.

Jon Ostolazak trikitia eta dultzaina uztartzen dituen diskoa kaleratu du Alejandro Irizarrekin

Trikitia eta dultzaina. Hain ohikoa ez zaigun instrumentu konbinaketa, baina tradizio luzeko hartuemana dutena. Egun ez da trikitilari-dultzainero bikote askorik geratzen, diskografia aldetik ere ez da material askorik. Hutsune hau betetzera dator hain zuzen, Jon Ostolaza herritarrak eta Alejandro Irizarrek Gaztelupeko Hotsak-ekin kaleratu duten 18 abestiko lan berria. Ostolazarekin bildu da NOAUA!

NOAUA! Diskoaren azalari begira, instrumentuen konbinazioa deigarria egiten da, ezohikoa baita. Tradizio luze baten isla da ordea.

Jon Ostolaza: CDko liburuxkan Joan Mari Beltranek azaltzen du nola lehen ohikoagoa zen dultzaina trikitiarekin batera jotzea. Berak esaten duenez, trikitixa Euskal Herrian sartu zenean, hasiera batean herriko musika eta aurretik zeuden instrumentuen piezak jotzen hasi ziren trikitilari haiek; txistulariena, albokariena eta batez ere dultzaineroena. Badiara hainbat dokumentu eta argazki, trikitilariak eta dultzaineroak batera agertzen direnak. Alejandro Irizar eta biok Itziarren ezagutu ginen, Txaranga, herriko txaranga taldean. Duela 40 urte sortu zen taldea. Bertan soinu-jole oso on bat zegoen, Txankarta. Haren inguruan orduko gazteek pentsatu zuten txaranga osatzea. Txaranga horrek gaur egun ere jarraitzen du. Txankarta soinu-joleak utzi zuenean, Azkoitiko Epelde trikitilaria eta Korta dultzaineroa ekarri zituzten. Orain arte formatu horrek segi du, beti trikitixa eta dultzaina egon izan dira. Epeldek eta Kortak utzi zutenean, bolada batean Jauregi eta Motte dul-



Alejandro Irizarrek eta Jon Ostolazak diskoari buruzko xehetasunak eman dizkigute.

JON OSTOLAZA

“Kalean jotzeko, dultzainak indarra ematen dio trikitixari. Guk gehienbat kalean jotzen dugu. Hirukote formatuan ibiltzen gara, panderojole batekin”

tzainero familia handiko kidea aritu ziren. Alejandro eta ni garaitu hartan ezagutu ginen. Ni ere Jauregirekin batera hasi nintzen soinua jotzen 16 bat urterekin txaranga horretan eta handik urte batzuetara ezagutu nuen Alejandro. Alejandro bonboa jotzen hasi zen. Baina beti atentzioa ematen zion dultzainak eta 50 urte egin zituen egunean, dultzaina oparitu zioten etxekoek. Oparitu eta handik bizpahiru urtera bera hasi zen dultzaina jotzen. Eta ordutik, gu gabiltza beste taldekideekin batera.

Disko hau ere talde horretatik dator beraz?

Bai. Itziarren bakarrik ez dugu

jotzen, baina erreperitorio potenteena bertan erabili behar izaten dugu. Hiru egunetan jotzen dugu erromeria giroan egun guztian zehar. Horretarako pieza asko jo behar dira estilo desberdinetakoak, eta material handia behar izaten da. Horren harira sortu da diskoa.

Trikitia eta dultzainaren konbinazioak ze berezitasun ditu belarrietarako?

Trikitixari dultzainak kalean jotzeko indarra ematen dio. Guk gehienbat kalean jotzen dugu. Egia esan itzali ere egiten da trikitixaren hotsa, baina jendea bertaratutakoan trikitixak badu lekua eta dultzainak ere bai. Diskoko azaleko irudian panderoa falta da, diskoan panderoa neronek jotzen dut. Hirukote formatuan ibiltzen gara.

Neurri batean Itziar omentzen duzue lan honetan?

Azken abestiarekin egin diongu keinu bat. Itziar duela lau

urte auzo udal izendatu zuten. Ni debarra naiz, aita Itziar-koa. Itziar, Euskal Herriaren edo independentzia lortu nahi duen edozein herriren adibide gisa har daiteke. Kasu honetan auzo udalaren alde egin zuten. Jende asko dabil borondatezko lanean eta gauza asko lortzen ari dira. Horren harira eskatu genien Itziar-ko bertsolariari, bertso sorta bat egiteko. Bederatzi bertso sortu zituzten eta itziartarrek beraiek abestea nahi genuen.

Txaranga horren testiguruan sortutako abestiak dira gainerakoak?

Ez. Egia da abesti asko haiei lotutakoak direla. Adibidez, Kardantxulo deitzen zaie itziartarrei. Buru Gorri hango taberna bat da. Elutzeta, jada desegina izan baina bertako gazteek auzolanean berreskuratu duten elurzulo bat. Arriola hango auzo bat. Perikin Itziar-ko dultzainero bat zen. Diskoko letra denak hiru bertsolari itziartarrek sortu dituzte.

“Umeak artista sentiaraztea zen helburua”

AGINAGAN OSPATUKO DEN ESKOLA TXIKIEN JAIALDIRAKO ABESTIA OSATU DUTE

NOAUA! Nolako izan zen diskoaren sortze prozesua?

Jon Ostolaza: Piezak aukeratu ondoren, estudiora joatea egokitu zen eta Beasaingo Pottoko estudioan grabatu genuen, Fredi Pelaez teknikariarekin. Esperientzia polita izan zen.

Lehen esperientzia?

Ez. Hasiara batean, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak plazaraturiko “Faborez 1” lanean hartu genuen parte. Urtebete beranduago, Lasturbidean izeneko diskoan Rakel Pujanarekin. Zuzeneko diskoa izan zen. Beste kolaborazio lan batzuk egin ditut. Azkenetakoa, ekainaren 9an Aginagan ospatuko den Gipuzkoako Eskola Txikien kanta sortzen ahalegindu gara.

Aipatu duzu. Auzolanean sortu duzue Aginagako ekainaren 9ko jaialdiko kanta, ezta?

Letra Andoni Egañak sortu zuen. Kantua sortutakoan, Haritz Harreguyren estudioan grabatzea pentsatu zen. Eskolako irakasle eta gurasoek parte hartu dute. Kantatu ikasleek eta irakasleek egiten dute.

Ikasleentzako esperientzia oso aberasgarria izango zen.

Helburua hori zen, umeak artista sentiaraztea. Kasko bana jantzi eta mikrofono aurrean abestu ahal izatea.



“Kantuari izena Andoni Egañak jarri zion, ‘Ateak Zabalik’. Eskolako ateak zabalik daudela adierazteko. Aginagako erreferentziak ditu baina gehienbat eskolakoak”. Argazkia kalejira batean eginikoa da.

JON OSTOLAZA

“Letra Andoni Egañak sortu zuen. Aginagako Eskolako irakasleek, gurasoek eta ikasleek hartu dute parte grabazioan”

Zer dio abestiak?

Izena Andoni Egañak jarri zion; “Ateak Zabalik”, eskolako ateak zabalik daudela adierazteko. Aginagako erreferentziak ditu baina gehienbat eskolakoak.

Aginagako eskolako gurasoa ere bazara. Nola doaz ekainaren 9ko Eskola Txikien jaialdiko prestaketa lanak?

Ilusio handiz. Ia jende asko etortzen den.

Ekainaren 9ko jaialdiko abestiak Andoni Egañaren letra du. Egañarekin bazabiltza beste proiektu batean.

Andoni Egañak bere ibilbideari buruzko bertsopaper batzuk idatziak zituen. “Neretik” du izena; arrebari edota amari abesten dio. Istorio polit batzuk baditu tartean, gai serio eta alaiak tartekatzen ditu. Nire lana bera kantuan ari dela, lagundu eta tarte batzuk uztea da. Oso esperientzia polita izaten ari da. Emanaldi batzuk eskaini ditugu eta segitzeko asmotan gara.

Denetarik egin duzu. Irakas-

kuntzan ere bazabiltza?

Beste herri batzuetan ere ibili naiz irakasten, baina orain une honetan Deban eta Orion nabil. Hau da gustukoena dudana.

Transmisio lana.

Askotan diot, erakutsiko diegu soinua eta panderoa ahalik eta ondoen, baina kantua, dantza eta batez ere ondo pasatzen. Jai giro hori erakutsi behar diegu. Mahai inguruan egoten, entzuten.

Bada harrobirik?

Badago. Ikasle onak izan ditut. Badira tartean, agian soinua hain ondo jo ez baina dantzari amorratuak direnak eta horrek asko poztzen nau. Zaletuak egin ditugu.

Pieza zaharrekin eta berrieekin osatu dute erreperitorioa

NOAUA! Donostian egin zenuen prentsaurrekoaren aurretik ere, Itziarren aurkeztu zenuen lan hau. Nolako izan zen plazaratzea?

Jon Ostolaza: Aurreestreinaldi modukoa izan zen. Itziarren egokitzen zen egitea. Itziariko jatetxe batean egiten diren erromerien barruan sartu

genuen gure aurkezpena. Itziariko jende asko etorri zen. Lekurik gabe geratu zen.

Diskoko piezak eta beste batzuk jo genituen eta goizaldera arte izan zen erromeria giroa.

Disko hau jaio da. Ze ibilbide egitea nahi zenukete?

Tritikilari eta dultzainero gutxi dabil elkarrekin jotzen. Diskografiaren aldetik ere oso material gutxi dago. Hori betetze aldera plazaratu dugu lan hau. Bien arteko konbinaketa egiteko erreperitorioa, piezak zaharrak izan dira gehienbat, pieza berri batzuk ere sartu ditugu tartean.



Azal hau du diskoak.

Aginaga, Eskola Txikien festari ateak zabaltzeko prest

Ateak zabalik ospatu nahi dute Aginagan ekainaren 9rako antolatzen ari diren Gipuzkoako Eskola Txikien 32. jaialdia. Eskola txikien aldarriarekin bat egin duten guztiak gonbidatzen dituzte bertara, modu berezian noski, 26 herri txiki eta auzoetako ordezkariak. Azkenean, Gipuzkoako eskola txikien arteko hartuemanak sendotu, elkar ezagutza bultzatu eta haien guztien topagunean bilakatuko baita Aginaga hilaren 9an.

Antolatzaileek horixe nabarmentzen dute, alegia, eskola txikiok herri eta auzo txikien bizitzan, haien biziraupenean duten ezinbesteko funtzioa. Txikitik, landa eremutik eragiten segitzeko nahia, kalitatezko hezkuntza eskainiz, dituzten berezitasunei eutsita. Besteak beste, aniztasunean, euskaraz, familia giroan eta ingurunearekin hartuemanetan den hezkuntza eredua sustatuta.

Aldarriari gorazarre eginez, guztion eskola, denentzat irekia dagoena izan nahi dute. Eta hala, "ateak zabalik" dituela hartu nahi dituzte ekainaren 9an Aginagan, Gipuzkoako Eskola Txikien jaialdira gerturatu-



San Praixku Guraso Elkartearen esanetan, jaiaren antolaketa handia suposatzen du.

SAN PRAIXKU GURASO ELKARTEA

"Ateak zabalik" hartu nahi dituzte ekainaren 9an Aginagan, Gipuzkoako Eskola Txikien jaialdira gerturatuko diren guztiak

tuko diren guztiak. Prestaketa lanen bideratzaile San Praixku Guraso Elkartearen esanetan, auzolan handia suposatzen dute.

Asteazkenean aurkeztekoak ziren Gipuzkoako Eskola Txikien Festa eguna. Aurkezpeneko xehetasunak aste bete barru plazaratuko ditugun arren, hemen jaialdiaren nondik norako nagusien berri:

Ekainaren 9ra arte

Aginagako Eskolari buruzko argazki erakusketa Aginagako Eliza Zaharrean.

Ekainak 9, igandea

Egitaraua:

- 10:00 Txistulariak (1,2,3,4)*
- 10:30 Harrera ekitaldia (1). Aginagako haurren ikuskizun koloretsua.
- 11:15 Jokoak gune guztietan (1,2,3,4).
- 13:00 Yolanda Arrieta ipuin kontalaria 2-5 urte artekoentzat ludotekan (1).
- 14:00 Bazkaria (1). Izen ematea: txartelak eskuragarri ekainaren 3ra arte, Aginagako Arrate tabernan. Helduen menua, 12 euro: gula nahaskia, oilasko paella eta ijito besoa. Haurren menua, 8 euro: oilas-

ko paella eta yogurra.

- 15:00 Mustaren Perkusio Tailerra (1).
- 15:00 Puzgarriak (3).
- 15:30 Lopene eta bere animaliak (2).
- 16:30 Sardiña Freskue antzerkia (1).
- 18:00 Apar festa (1).
- Zerbitzuak: komuna, pardekak, txosna, bazkariak, denda, tiketera, iturria, kontsigna.

*Guneak:

- 1-Eskola: Aginaga Kaxkoa.
- 2-Baserria: Usurbildik Aginaga heldu berritan ezkerretara gertatzen den lur eremua.
- 3-Sagardoa: Aginaga Sagardotegi atariko aparkalekua.
- 4-Erria: Aginaga sagardotegi ondoko eremua.

Garraio zerbitzu publikoak baliatzeko deia

- Doako autobus zerbitzua Aizpurua lantegiko eskutik: -10:00-12:00 Atxega jauregi ondoko Zumarte industriagunetik Aginagara. -17:30-19:30 Aginagatik Usurbila itzultzeko autobus zerbitzuak.
- Lurraldebus autobus zerbitzuak.
- Aparkaleku mugatuak: Aginaga Kaxko paretik Mapilera bidean aparkatzeko lau gune.

Eskola kideen topaketa eta omenaldia

Aginagako Eskolako belaunaldi ezberdinetako kideak, duela 50-60 urtera artekoak erretratatu ditu egunotan Eliza Zaharrean ikusgai izango duzuen erakusketak. Irudi bilduma auzolan osatu dute, herritarrek utzitako argazkiekin.

Maiatzaren 25ean, erakusketaren irekieran, Aginaga Sagardotegian bildu ziren belaunaldi ezberdinetako eskola kideak. Eta bertan, hamarkadotan irakasle lanetan jardundakoak omendu zituzten oroigarri ba-



Aginagan irakasle lanetan jardundakoak omendu zituzten.

naketa ekitaldi batekin. Hitzok eskaini zizkieten: "Izan zinetelako gara, eta garelako izango gara. Hemen esaldiaren

jatorria! Txikiak gara eta ez dugu hazi nahi! Sendotu baizik, indartsuak izan (...). Gaur egungo eskola ezin dugu uler-

tu urteetan atzera joan gabe. Argazkietan ikusi dugu egon den eboluzioa, señorita Mertxe, Jexux eta Miren, edota Gurutze eta Luciaren garaien arteko jauzia. Urte hauetan zehar ume asko hezi duzue, bizitzako gora-beherak erakutsi, belaunaldi ezberdinen jakituria iturri izan zarete, herri honi hezten lagundu diozue. Aldi berean, gizarte hobea bat egiten lagundu duzue. Beraz, herri honek, eskola honek, ez zaituzte ahazten! Eskerrik asko".

OSASUN GIDA 2019



Irati Ibargoien
FISIOTERAPIA - OSASUNA

ZERBITZU BERRIA

PSIKOLOGIA

- Terapia indibidualak
- Mindfulness

PILATES TERAPEUTIKOA

- Indibiduala
- Taldetakoa

BESTE TERAPIA MOTAK

- Presoterapia



943 53 92 66 Puntapax 6B, behea ez. USURBIL

FISIOTERAPIA

- Amatasun prestakuntza
- Zoru Pelbikoko tratamenduak

Lesioak: traumatologikoak, posturalak, kirolekoak, ATM disfuntzioak, zoru pelbikoa...

Teknikak:

- Terapia Manual Ortopedikoa (TMO)
- Fisioterapia eta osteopatia Funtzionala
- Puntzio lehorra
- FIM (fibrolisis instrumental miofascial)

ZERBITZU BERRIA



USURBIL
OPTIKA

Bigarren lente pareta doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urrunekeo lenteetan

2. lente pareta doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatiakoak
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS: 28/17



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Lizarralde
ORTOPEDIA

Kazkazuri 1 baxua, Olartzun - 943 543 585/ 688 678 583
www.lizarraldeortopedia.eus

✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA

- ✓ Produktu ortopedikoen alokairu zerbitzua (oheak, aulkak, garabiak...)
- ✓ Arreta pertsonal eta espezializatua

✚ Teknikari ortopeda kontsulta

👤 Aholkularitza

🏠 Produktu gama zabela

Kima
MASAJE LEKUA

•Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirindulariaren azterketa biomekaniko eta osteopatikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Öinutsik

podologia zentroa

etorri zaitez zure oinen eta posturaren azterketa bat egitera!

Sustatu eta osasun oinetatik

943 11 09 54 zubiaurrenea 2

Ekainaren 7an, Etxe eta Ibai Marinekin kontzertu gaua Sutegin

Biak batera Euskal Herrian barrena eskaintzen ari diren emanaldietako bat Sutegin eskainiko dute ekainaren 7an. 22:00etan irekiko dituzte aretoko ateak. Sarrerak 8 eurotan eskuratu ahalko dira egunean bertan.

Etxe: “Beti amestutako diskoa kaleratzea lortu dut”

NOAUA! Ekainaren 7an Sutegin arituko zara Ibai Marinekin batera. Nondik sortu zen kontzertu hau eskaintzeko asmoa?

Etxe: Aspaldiko lagunak gara Ibai eta biok. Nik Nabarin jotzen nuenean eta Ibaik Hiran Nabariren maketan kolaboratu zuen. 2003an, emanaldi batzuk elkarrekin egin genituen. Gero bakoitzak bere bakarkako bidea egin dugu. Bion arteko harreman onetik eta estilo antzeko samarretik sortu da kontzertuok batera emateko ideia.

Nola doa bira partekatua?

Berrizko Gaztetxean egin genuen kontzertu bat. Oso berezia izan zen, lehen aldiz elkarrekin bertan jo baikenuen, Nabarik eta Hirak. Tolosako Bonberenean ere egon ginen, ziurrenik kontzertu gehiago aterako dira, talde bien artean oso harreman ona baitago.

“Supernova” autofinantzaturiko lan berriarekin zatoz.

Disko desberdin bat egiteko gogo nuen. Ekoizle batekin egin dudan lehen diskoa izan da, beti amestutako diskoa kaleratzea lortu dut. Beti entzun nahi izan ditudan kantuak formatu horretan egitea nahi nuen ekoizle baten bidez. Inguruan ditudan musikariak ikaragarriak dira.

Lan borobilena?

Bai, ekoizpen aldetik beste profesionaltasuna du. Ekoizle baten papera disko batean oso garrantzitsua da eta orain arte ez



“Supernova” bere lan berriko abestiak entzun ahal izango ditugu ekainaren 7an Sutegin.

ETXE

“Entzuleari animatzen diot garai zail hauetan kontzertura etortzea. Benetan rock gau polita izango da. Dugun guztia emango dugu”

dut horrelakorik izan. Azken disko honetan horrela egin dut lan eta emaitza hobea da.

7 abesti. Bertsio ezagun bat tartean.

Sortu nuen lehen kantua “arma tiro pum” izan zen. Ni musikari izatearen errudunak omendu nahi nituen, euskal musikagintzako sortzaile, musikariak... Euskal talde pila bateko abestien esaldiak hartu eta collage moduko batekin musika munduan dugun pa-

noramana salatu nahi nuen. Bertsioa, oso kantu berezia da, beti miretsi izan dudana Rosario Floresen “zein ederra”. Literalki euskaratu nuen. Izugarriko magia du abestiak. Rosarioren managerrari baimena eskatu nion. Portugaleteko bere kontzertuan pertsonalki ezagutze-ko aukera izan nuen, ederra da horrelako artista handi baten oniritzia izatea. Bideoklipak ere arrakasta izan du. Pozik halako kantu bat moldatu izanaz.

Ez da Usurbila zatozen lehen aldia.

Usurbilen egonda nago bakar-kako proiektu honekin duela urte batzuk jaietan. Trikizio eta Boston Jairekin aritu nuzenean, Boston Jairekin bertan egona naiz. Usurbilen izan zen

nire azkeneko kontzertua erro-meria batean. Nire lehenengo managerra Unai Zubiaur usurbildarra izan zen. Herri horretan egon naizen guztietan jendearen erantzuna oso ona izan da. Espero dut oraingoan ere aspaldiko ezagun batzuk gerturatzea.

Zurekin Ibai Marin arituko da.

Berea, rock and roll amerikarraren kutsu izugarria duen proiektua da, Ibairen ahotsa ikaragarria da, musikari bikainak ditu. Zuzenekoan indarra duen proiektu bat, benetan gozatzekoa. Entzuleari animatzen diot garai zail hauetan kontzertura etortzea. Benetan rock gau polita izango da. Dugun guztia emango dugu eskenatokian, beti bezala. Let’s rock the night!

Ibai Marin: “Ezer gordetzeko beldurrik ez dudan etapara heldu naiz”



Ibai Marinek “Bidean naiz” diskoa plazaratu zuen azaroan. Ekainaren 7an Sutegin arituko da, Etxerekin batera.

NOAUA! Nolatan zatozte Etxe eta zu Usurbila?

Ibai Marin: “Bidean naiz” diskoa kaleratu nuen azaroan. Etxerekin jada pare bat kontzertu eskaini ditut. Berak pare bat emanaldi lotu zizkidan eta bueltatzearen, Gipuzkoa aldera ekarri dut. Usurbil leku aproposa iruditzen zitzaidan, bertan lan egiten dut eta lagunak ditut.

Disko autobiografikoa duzu “Bidean naiz”.

Hirarekin bost disko kaleratu eta gero, *in*paspe bat sortzen da hor eta bakarkako disko bat sortzera ausartzen naiz, etapa bukaera eta etapa berri honetan suertatu zaizkidan hainbat gauza kontatuz.

Oholtzan, sortzailearen atzean dagoen pertsona ikusiko dugu nabarmenago.

Kantuan nire bizitzaren etapa desberdinak kontatzen ditut eta egia esan oso azaleko kontuak dira. Biluztu egiten naiz. Ezer gordetzeko asmorik ezta beldurrik ez dudan etapara heldu naiz. Horixe da nire us-

IBAI MARIN

“Etxe rock-a jorratzen duen musikari umila da, benetako egia islatzen duen norbait. Eta hori eskertzen da entzulego bezala. Rock organikoz eta zintzotasunez beteriko gaua izango da”

tez, entzulegoarekin konektatzeko erarik handiena.

Jendaurrean biluzteko ausardia ere beharko da.

Hirugarren kontzertua eman ostean, ez nintzen segitzeko gai ikusten. Laugarren edo bosgarren kontzertuan ez dakit zer gertatu zen, ikuskera aldatu eta ausardia hori etorri zitzaidan. Oholtza gainean egon nahi nuen konfirmazio bortitz bat izan zen. Beldurra beti egoten da halako proiektu bat defendatzeko garaian, baina oso gustura sentitzen naiz egiten dudanarekin.

Zure izena oso lotua dago Hira taldeari. Erraza al da proiektu

hartatik bereiztea, bakarko ibilbide honetan?

Oso harro nago egindako lan guztiaz. Hirak etapa oso polit bat bizi izan zuen, heavya euskaraz eginez eta jarraitzaile asko izan genituen. Arrastoa hor geratzen da eta hor egon behar du. Nire zigilu pertsonala nire ahotsean dago eta ahotsaren zigilua hor geratzen da.

Askok esaten dute oraindik heavy puntu bat nabaritzen dela melodietan eta ni gustura horrekin. Ez dut deslotu nahi. Diskoko izenburua ere bat dator erabat proiektuarekin, prozesu bat irudikatu nahi du, orain arteko ibilbidea eta bidean jarraitzen dudana musikaria naizela, konstantziaren indarra.

Bi artiston konbinazioa nolakoa izango da Sutegin?

Etxe rock-a jorratzen duen musikari umila da, benetako egia islatzen duen norbait.

Eta hori eskertzen da entzulego bezala. Rock organikoz eta zintzotasunez beteriko gaua izango da.

Irati Azkueren diseinua izango du jai egitarauak

Ekainaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko diren Usurbilgo jaietako egitarau diseinu txapelketak badu jada irabazlerik; Orioko Irati Azkue. Hala erabaki zuen txapelketako epaimahaiak maiatzaren 20an egin zuen bilkurak.

500 euroko saria

500 euroko saria irabazi du eta aipatu moduan, Azkuek diseinatutako egitarauak emango digu aurten, Usurbilgo festen berri.

Ekainean banatuko da

Aldaketarik ez bada, jaiak hasi aurreko ekainaren 21eko asteburuan banatuko du Udalak etxez etxe.

Aisialdi eta jai giroko eraso sexisten aurkako gidaren lanketa saioa

Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak deituta, ekainaren 7an (ostirala) 18:00-20:00 artean Potxoenean. Sexu eraso eta eraso matxisten prebentzioan eta arretari dagokionean, kontzientzia soziala eta sensibilizazioa handitu eta indarkeria mota honen aurkako erantzuna hobetu eta koordinatzeko gida bat landuko da, gero herri mailan zabaltzeko. Formazio saioa izango da, irekia edonorentzat, modu berezian, mugimendu feministari, herri eragileei, aisialdikoei edota jaietako antolatzaileei zuzendurikoa.

Deialdia:

- Ekainak 7 ostirala.
- 18:00-20:00.
- Potxoenean.

Agurtzane Solaberrieta, EH Bildu: “Adostasun berriak lantzeko bokazioz nator”

EH Bilduk gehiengo osoa lortu du. Hor-taz, udal gobernua osatzeko garaian, ez du beste inoren premiarik izango. Hala ere, “rodilloaren politikak” ez dituela gustuko adierazi digu Agurtzane Solaberrietak. “Gainerako alderdiekin adostasunetara iritsi nahiko nuke. Emaitez erakutsi duten bezala, gure herria anitza baita”.

Hauteskundearen biharamunean, alderdiengana jo dugu balorazio eske. Duela lau urteko emaitzak errepikatu direnez, indar korrelazioak bere horretan mantenduko dira. EH Bilduk zortzi ordezkari izango ditu, EAJ-PNVk lau eta PSE-EEK bat.

“Bihotz-bihotzez, mila esker”

Eskuratu duen boto kopuruarekin pozik da EH Bilduko zerrendaburua. “Ezer baino lehen, usurbildarrei esker eman nahi dizkiet berriro ere guggan konfiantza jartzeagatik, eta alkate izatera eraman nautelako. Bihotz-bihotzez, mila esker. Ez dut beste hitzik”.

EH Bilduk zortzi zinegotzi zituen eta zortzi izango ditu datozen lau urteetan. “Oso pozik gaude lortutako emaitze-



Aliantzak zabaltzeko asmoa duela adierazi digu Agurtzane Solaberrietak: “oposizioarekin, herriko eragileekin, auzoekin eta, nagusiki, inor bazterrean utzi gabe”. Bera izango da hurrengo alkatea.

AGURTZANE SOLABERRIETA

“Guztiona eta guztiontzat den Usurbil eraiki behar dugu. Herri interesak lehenetsiz”

kin: zortzikoari eustea zen gure helburu nagusia, eta lortu dugu, nahiz eta duela lau urte baino 60 boto gutxiago atara”.

Emaizta honekin, gehiengo osoa eskuratu du ezker abertzaleak. “Hala ere, rodilloaren politikak ez ditut gustuko. Guztiona eta guztiontzat den Usurbil eraiki behar dugu. Herri interesak lehenetsiz, elkarri entzunez, elkar begiratzuz, hitz eginez, aliantzak zabaltzera eta adostasun berriak lantzeko bokazioz nator, bai oposizioarekin, bai herriko eragileekin, auzoekin, eta, nagusiki, inor bazterrean utzi gabe”.

“Alkate ezinhobea izan da Xabier. Ohore handia izango da haren eskutik lekukoa hartzea”

Ez du kargua hartu oraindik baina da goeneko aurrera begira sumatu dugu Agurtzane Solaberrieta. Hala ere, ez du iragan hurbileko agintaldia gorai-patu gabe utzi nahi. “Orain arteko udal gobernua egin duen lana txalotu nahi dut”. Maiatzaren 26ko emaitzek ere antzekoa adierazten dutela dio: “uste dut herritarrek ere txalotu egin dutela kudeaketa bikain hori. Dena eman dute usurbildarren alde, usurbildarrok hobeto bizi gaitezen”.

Azken bi urteotan hain zuzen, Agurtzane Solaberrieta komunikazio lane-tan aritu da udaletxean. “Zortea izan dut azken bi urteotan haiekin eskuz esku lanean aritzeko, eta Xabirekin

(Xabier Arregi) asko ikasi dut. Alkate ezinhobea izan da, eta ohorea eta errespetu handia izango da haren eskutik lekukoa hartzea”.

“Udal-gobernuko bulegoko atea zabalik izango dira uneoro”

Kargu berria hartzearen honetan, aholku bakarra eman dio Arregik Solaberrietari: “Jendeari entzun eta haren tokian jartzen saiatu”. Halaxe aitortu digu EH Bilduko zerrendaburuak. “Horixe da, beraz, nire asmoa: alkatetzako zein udal-gobernuko bulegoko atea uneoro zabalik izango dira eta herritar guztiei behar duten denbora osoa eskaintzeko asmoz gatoz”.



“Orain arteko udal gobernua egin duen lana txalotu nahi dut”, adierazi digu Solaberrietak.

Josune Urkola, EAJ-PNV: “Jasotako babesak usurbildar guztion aldeko lanean indarberritzen gaitu”

Udal hauteskundeetako emaitzen aurrean, pozik dira Usurbilgo EAJ-PNV alderdiko kideak. Legealdi berrian “lau zinegotziok buru-belarri arituko gara herria hobetzeko ekimenak bultzatzen”, ohar bidez jakinarazi dutenez.

Hauteskunde gauaren biharamunean jaso genuen EAJ-PNVren balorazioa. Ezer baino lehen, Josune Urkolak Agurtzane Solaberrieta zoriondu zuen. Eta segidan, esker ona azaldu zien hautesleei: “EAJ-PNVko udal taldeak bere esker ona adierazi nahi du taldeari eta aurkeztu duten programari herritarrek eskaini dieten babesarengatik”.

Akordioetara heltzeko borondatea EAJ-PNVk 864 boto jaso zituen udal hauteskundeetan eta babes horrek “datozen lau urteetan lanean ari izateko indarberritzen gaitu”. Josune Urkolak adierazi zigunez, “gure helburua aurkeztu dugun programa betetzeko ahaleginak egitea izango da, horretarako beharrezkoak izango diren akordioetara heltzeko borondatearekin”.



“Buru-belarri arituko gara herria hobetzeko ekimenak bultzatzen”. Lau ordezkari lortu ditu EAJk. Carlos Perez, Mirari Azurmendi, Josune Urkola eta Andoni Atxega zinegotzi izango dira.

“Usurbildar guztien ongizatea bermatzea izango da gure jomuga” Ildo horretan, Usurbilgo zerrendaburu jeltzaleak honokoa aurreratu zuen: “norberaren ideologiatik haratago, usurbildar guztion ongizatea bermatzea izango da gure jomuga”. Eta bide horretan, adostasuna bila-

tzeko prestutasuna du alderdi jeltzaleak: “guztionean, udaletik hasi eta beste erakundeekin batera, proposamenak landu eta akordio partekatuetara heltzeko prest izango gara. Konbentziturik gaude hau dela usurbildarrek beren botoekin eman dигuten agindua”.

Patxi Suarez, PSE-EE: “Lortutako eserlekua politika sozialak sustatzeko baliatuko dugu”

PSE-EEK zinegotzi karguari eutsi dio. Ez hori bakarrik, botoetan ere igoera txiki bat izan du. Igoera hori nabarmenagoa izan da Foru zein Europako hauteskundeetan. “Jasotako botoak eta lortutako eserlekua politika sozialak hobetzeko eta Usurbilen garapenean aurrera egiteko erabiliko ditugu”, PSE-EEK adierazi digutenez.

“Euskal sozialistak pozik gaude botoetan gorakada izan dugulako. Herritarrei eskerrak eman nahi dizkiegu sozialistengan ipini duten konfiantzarengatik”. Azken urteotako udal dinamika mantenduko dutela diote iturri sozialistek. “Usurbilen bizi eta lan egiten dutenen

bizimodua hobetzeko gure konpromisoa berritzen dugu”, iturri sozialistek NOAAU-ri aditzera eman diotenez.

“Aurreko zinegotziak hasitako lanari jarraipena emango diogu”

Emitza hauei esker, Patxi Suarez Perez zinegotzi izango da datorren legealdian. Fermin Orue-Echeverria zinegotziaren tokia hartuz. PSE-EEK aditzera eman dutenez, “Orue-Echeverriak hasitako lanari jarraipena emango dio bozeramaile berriak”. Alderdiak gainera, eskerrak luzatu nahi dizkio Orue-Echeverriari: “bere lana eta dedikazioa eskertu nahi dugu”.



Patxi Suarez PSE-EEKo zinegotzi izango da datozen lau urteetan.

Luismari Ormaetxea, Aulki Zuriak: “244 pertsonen euren desadostasuna azaldu dute”

Luismari Ormaetxeak bozetan parte hartu duten herritar guztiak zoriondu nahi ditu, “beren ahaleginarekin demokrazia sendoago bat osatzen baita”. Zinegotzi-eserlekuak lortu dituzten alderdientzat berriz, eskaera bat du: “herritar guzti-guztientzat lan egin dezatela. Euren ahaleginak eta indarrak horretan ipini dezatela espero dut”.

Ormaetxearen esanetan, Aulki Zuriak alderdiaren erronka ez zen erraza; “batetik, alderdi berria delako; eta bestetik, ezohiko mezua dakarrelako usurbildarrentzat. 80 bozka gehiago

izan bagenitu zinegotzi-eserleku bat lortu ahal genuen. EH Bilduren kalte-tan izango zen”.

Hautesle kritikoak, %8

Aulki Zuriak-ek lortu dituen botoei “gehitu bagenie hauteskunde legearen baitan baztertuak izan diren 117 bozka zuriak, guztira, 244 bozka kopurua osatuko lukete; hau da, 244 pertsonen euren desadostasuna azaldu dute beste alderdiek aurkeztu dituzten programei eta hautagaiei. Hautesle kritiko horiek bozka eman duten



Aulki Zuriak-eko zerrendaburuak. Argazkia: DV.

%8a osatzen dute. Ez da gutxi”.

Aulki Zuriak-eko zerrendaburuarentzat, euren mezua zabaldu izana da garrantzitsuen. “Herritarrek ezagutu gaituzte jada”.

Europako hauteskundeak: udal hauteskundeetan baino babes txikiagoa jaso zuten EH Bilduk eta EAJk Usurbilen

Usurbilgo emaitzak:



EH Bildu-Orain Errepublikak	1.640
EAJ-PNV	677
PSE-EE	299
PODEMOS-IU	238
PP	52
JUNTS	35
Ciudadanos	33
PACMA	11
VOX	9
I.FEM	7
CPE	5
PCPE-PCPC-PCPA	4
RECORTES CERO	2
PUM+J	0
Beste batzuk	27

Partaidetza: %65,36
 Zenbatutako botoak: 3.075
 Abstentzioa: %34,64
 Boto zuriak: 25
 Boto baliogabeak: 11

Iturria: gipuzkoa.eus

		2019	
Alderdia		Botoak	
	EH BILDU-ORAIN ERREPUBLICAK	1.640	% 53,52
	EAJ-PNV	677	% 22,09
	PSOE	299	% 9,75
	PODEMOS-IU	238	% 7,76
	PP	52	% 1,69
	JUNTS	35	% 1,14
	Cs	33	% 1,07
	PACMA	11	% 0,35
	VOX	9	% 0,29
	I.Fem	7	% 0,22
	CPE	5	% 0,16

Udal hauteskundeak: Duela lau urteko argazki beretsua

Alderdia	2019				2015		
	Zinegotziak		Botoak	%	Zinegotziak	Botoak	%
 ehbildu EH Bildu	8	–	1.651	% 54,06	8	1.714	% 57,42
 EAJ-PNV	4	–	864	% 28,29	4	866	% 29,01
 PSE-EE (PSOE)	1	–	248	% 8,12	1	234	% 7,83
 EB	0	–	127	% 4,15	-	-	-
 PP	0	–	47	% 1,53	-	58	% 1,94
ZURIAK	0	–	117	% 3,83		113	% 3,78

EH Bilduk boto gehiago lortu zituen Batzar Nagusietan

Usurbilgo emaitzak:

EH Bildu	1.731
EAJ-PNV	721
PSE-EE	300
PODEMOS-AHAL DUGU	207
PP	56
Aulki Zuriak/	
Escaños en Blanco	18
Ciudadanos	17

Partaidetza: %66,09.
Zenbatutako botoak: 3.104.
Abstentzioa %33,91.
Boto zuriak 29.
Boto baliogabeak: 25.

Iturria: gipuzkoa.eus

Alderdia	2019		2015	
	Botoak	%	Botoak	%
 ehbildu EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu)	1.731	% 56,21	1.637	% 54,45
 EAJ-PNV	721	% 23,41	705	% 23,45
 PSE-EE (PSOE)	300	% 9,74	186	% 6,18
 PODEMOS-AHAL DUGU / EZKER ANITZA-IU / EQUO BERDEAK	207	% 6,72	328	% 10,91
 PP	56	% 1,81	58	% 1,92
 EB	18	% 0,58	-	-
 Ciudadanos CIUDADANOS	17	% 0,55	30	% 0,99
ZURIAK	29	% 0,94	52	% 1,72

Zubietako Herri Batzarra: Haritz Arrizabalagak eta Jon Arroyok jaso zituzten boto gehien

Udal hauteskundeetan hautatu ohi da Zubietako Herri Batzarraren ordezkari. Usurbil aldeko zubietarren artean Haritz Arrizabalaga izan zen bozkatuena. Donostia aldeko zubietarren artean aldiz, Jon Arroyo izan zen babes gehien eskuratu zuena.

Lehen bi urteetan, usurbil aldekoek gehiengoz hautaturiko hautagaia izango da alkate. 2021 arte Haritz Arrizabalaga izango da zubietarren ordezkaria. 2021-2023 urteetan Jon Arroyok

hartuko du Haritz Arrizabalagaren lekukoa.

Zubietako Herri Batzarra Maiatzaren 26ko emaitzak

■ Usurbilaldean:
Haritz Arrizabalaga 81 boto.
Urtzi Alberdi 41 boto.

■ Donostialdean:
Jon Arroyo 63 boto.
Eneko Izagirre 46 boto.
Ignacio Izagirre 44 boto.



Zubietako Herri Batzarrak ordezkari berriak izango ditu.

Urdiñarbeko maskarada Usurbilen

Euskal herritarren arteko, nahiz zuberotar eta usurbildarren arteko hartuemanak estutzeko aukera bikaina izango da bi asteburu barrurako antolatu diren bi hitzorduekin. Ekainaren 16an, inguruotan ospatuko den maskarada bakarraz gozatzeko aukera izango da Usurbilen. Urdiñarbeko maskarada izango dugu egun osoz; harrera, barrikadak, ekitaldi nagusia... Maskarada bat zer den iruditan ezagutu dezakezue asteotan Artzabalen ikusgai izango den Iñaki Agirresaroberen argazki erakusketan.

Bezperan, joan den larunbatean Kaxkoan barrena ikasturteko ohiko itzulia ospatu zuen Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak txangoa antolatu du Zuberoara, Maule eta Urdiñarben ospatuko den Euskal Herria Kantuz egunera. Izenak dioen moduan, Euskal Herriko kantu zale eta taldeak elkartuko ditu hitzorduak. Kantu-jira ospatuko dute goizez Maulen. Herri bazkaria, eta bazkalosteko dantza eta kantu saioa antolatu dute gero Urdiñarben. Joan etorrirako autobus zerbitzua antolatu du Kantu Taldeak.



Ekainaren 16an, Urdiñarbeko maskaradaz gozateko aukera izango dugu Usurbilen. Argazkia: Edurne (@edurnemi).

EKAINAK 15 LARUNBATA

“Usurbilgo Kantu Taldeak Maulen eta Urdiñarben ospatuko den Euskal Herria Kantuz egunean hartuko du parte. Joan etorrirako autobusa antolatu dute”

Izen emateko haiekin hartuemanetan jarri. Astelehenero biltzen dira 18:00-19:00 artean Agerialdeko musika gelan.

Ekainak 1-16

■ Iñaki Agirresaroberen “Zuberoako maskaradak” argazki erakusketa Artzabal tabernan.

Ekainak 15, larunbata

■ 8:30 Usurbilgo Euskal Kantu Taldearekin Maule-Urdiñarbeko (Zuberoa) Euskal Herria Kantuz egunera egunpasa autobusez Oiardo Kiroldegi ataritik. Izen emateko hartuemanetan jarri Kantu Taldekoekin.

Ekainak 16, igandea

Urdiñarbeko maskarada Usurbilen.

- 11:45 Harrera Udalaren aurrean.
- 12:30 Barrikadak kalerik kale.
- 14:00 Azken ekitaldia Mikel Laboa plazan.
- 14:30 Bazkaria.
- 16:30 Ekitaldi nagusia pilotalekuan.

Igande honetan, Berria Txapelketaren kanporaketa Usurbilen

Pagazpe elkartetik aditza eman dutenez, Berria Txapelketako kanporaketako hiru partida jokatuko dira Usurbilen igande honetan, ekainaren 2an. “Kanporaketa estua aurreikusten da eta jendeari frontoira gerturatzeko deialdia egiten diogu”, adierazi dute. Arratsaldeko 17:30ean hasita hiru kategoria ezberdinetako neurketa bana ospatuko da frontoian. Pagazpeko ordezkariok parte hartuko dute:

- Kadeteak: Unai Albeniz-Oier Garaiar.
- Jubenilak: Imanol Galarraga-Aimar Iruretagoiena.
- Helduak: Hodei Exposito-Xabier Santxo.



Azpeitiko Ilunpe izango da Pagazperen aurkaria.

Zirimararen ikasturte amaierako festa eta balantze eguna, ekainaren 6an

Ikasturtea agurtzeko amaiera festa eta balorazio saioa antolatu du Zirimara taldeak ekainaren 6an (osteguna). Hasteko, 18:00etan frontoian jolas erraldoia, gurasoak ere parte hartzera anima daitezke. Segidan Sutegin, haur eta guraso kopuru handia ikusita, bi txandatan zatituko den balorazio eta gogoeta saioak programatu dituzte.

18:45ean HH5, LH1-2ko gu-

rasoekin eta LH3-4 haur eta gurasoentzako argazki emanaldia. 19:15ean LH1-2ko haur eta gurasoentzako argazki emanaldia eta LH3,4,5eko gurasoekin balorazio eta gogoeta saioa. Argazki emanaldiei begira, “bi adin tarteetako seme-alabak baldin badituzue, txanda bat aukera ezazue guztiekin batera egon ahal izateko”. Gogoeta saioak gurasoei soilik zuzenduak izango dira. “HH5

eta LH5ekoak ere gonbidatuak zaudete. Anima zaitzete zuen kezkek, interesak eta beharrak gurekin partekatuz. Guztion artean eskola kiroleko programa hobetuko dugu!”.

Izen-ematea, irekitzear

Ikasturte berrira begirako izen ematea ekainaren 7tik 14ra atzeratu du Zirimarak, hilaren 6an “elkarrekin gogoeta egin eta hurrengo ikasturteko pro-



Ostegunean arratsaldeko 18:00etan jolas erraldoia hasiko da.

gramazio eta antolaketaren inguruko informazioa argi uztea da helburua”.

Edertu zaituz!

INDIBA

DEEP BEAUTY

PROGNIC BODY CARE SYSTEM

DESKONTU BEREZIAK

· ZELLULEN BIRSORTZEA · LIPOLISISA · MODELAKETA · ERREAFIRMAZIOA
· AZALAREN TONIFIKAZIOA · OXIGENAZIOA · HIDRATAZIOA · LIFTING

✓ ZELLULITISAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZIMURREN LEUNKETA
✓ BULARREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILUETAREN HOBEKUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

www.enarestetika.com

Enar

ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK: PRESOTERAPIA · TERMOLINEA · ELEKTROESTETIKA · PRESOTERAPIA

Munalurra 2, USURBIL 943 57 16 80



Ane

ILEAPAINDEGIA

Artzabal



JUBILATUENTZAT AUKERA ONENA

Artzabal baserria 626 603 600

UDABERRI BEGIRA JARRI ZURE AZALA PREST

- AURPEGI GARBIKETA
- GORPUTZ GARBIKETA
- PRESOTERAPIA
- PEDIKURA · MANIKURA,
- BETILEEN TINTAKETA IRAUNKORRA
- MIKROPIGMENTAZIOA
- LASER IODO · DEPILAZIOAK

INTZA

ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekita
Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41



Elexpe

ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

TXANPU ETA LOZIO BITAMINADUNA

Eskola adinerako berezia

- Iturburuko ur mineralarekin
- Kontserbagarririk gabea
- Belaunaldi berriko formula:
Te arbolez, "Neem"-ez, Kamamila
destilatuz eta Bisabobolez indartua



Zorlen
aurkako lozio
ORGANIKOA

KUNDA

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951

Sagardo Egunaren Lagunak-en eskertza

Bihotzez eskerrik asko!. Hitzokin biziki eskertu nahi izan dute antolatzailleek, aspaldi bizi gabeko hilaren 19ko Sagardo Egun eurtsuenera etorritako bisitariei. “Mila milioi esker usurbildar zein kanpotarrei, eguraldi oso txarra egin arren, zuen aterki eta guzti bertaratu zineten guztiei”.

Esker hitzak baita, nola ez, auzolanean aritutako ehunetik gora lagunei. “Zer esanik ez, goizeko 7:00etan jaiki eta leihotik begiratzean, botatzen ari zuen euriteari jaramonik egin ez eta laguntzera agertu zineten 100 eta piku usurbil-



Sagardo Egunera bertaratutakoei eta antolaketa lanetan aritu zirenei eskerrik helarazi dizkiete.

darrei!! Ene bada... Zoragariak zarete, handiak bene benetan, eskerrik asko bihotzez. Zuen falta izanez gero, usurbildarren egun handi hau

ez litzateke posible izango”, adierazi dute Sagardo Egunaren Lagunak taldekoek, sare sozialen bidez zabaldu duten mezuaren bidez.

Ostegun honetan pintxo pote feminista, ‘80 egunean’ film proiektzioarekin

Martxoaren 8ko greba feminista antolatu zuen emakume taldeak biltzen segi du ordutik. Abian duten lanketari zer forma eman, norantz jo erabakitzeke hausnarketa prozesua abiatuko dute udazkenean. Aurretik ostegunetako pintxo poteak girotze aldera, bi film proiektzio antolatu dituzte maiatzaren 30ean eta ekainaren 13an 21:00ak aldera frontoian.

Ostegun honetan, “80 egunean”, Itziar Aizpuru eta Mariasun Pagoaga protagonista dituen euskal filma proiektatuko da. “Axun, 70 urteko emakumea, alabaren senar ohia zaintzera joango da ospitalera. Bere ezustetarako, ondoko gaixoa zaintzen duen emakumea Maite da, nerabegaroko lagun mina, 50 urte luzetan ikusi ez duena.



Ostegun honetan, 21:00ak aldera, ‘80 egunean’ filma eskainiko dute frontoian.

Gaztetan zuten kimika oraindik bizirik dagoela sumatuko dute berehala. Axolagabe gozatu eta dibertitzen dira elkarrekin, Axun, Maite les-

biana dela jabetzen den arte. Bere sentimenduak dudan jarriko ditu Axunek: zeri jarraitu, buruari edo bihotzari?”.

Sagardo Eguneko mariskada

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak Sagardo Egunez antolaturiko errifa zozketako mariskadaren zenbaki sarritua 1.104 izan zen. Peru Belokiri egokitu zaio.



Sagardo Eguneko mariskada Peru Belokiri tokatu zitzaion.

2020ko Euskaraldia prestatzen hasteko bilera

Larunbat honetan aurkeztekoak dira Donostian 2020ko Euskaraldia. Usurbilen ere prestaketa lanak abiatzera doaz. Ekainaren 4rako deitu dute bilera irekia herritar eta eragileentzat, 18:00etan Potxoenean.

Urtebetetze argazkia, azken ostiraletako elkarretaratzean

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituta, euskal presoaren eskubideen aldeko elkarretaratzea maiatzaren 31n 20:00etan Mikel Laboa plazan. Mobilizazio amaieran, Olatz Lasagabaster presoaren urtebetetzeak tarteko, bera zoriontzeko argazkia aterako da. Patxi Urangarekin eta Xua haurrekin aske behar lukeen arren, Usurbildik 600 kilometrora Valentziako Picasenteko espetxean segitzen du Lasagabasterrek. Ekainean 10 urte beteko dira espetxeratu zituztenetik.

#PRAKTIKATUetaBIZI

Udan ere praktikatu eta bizi

Izena emateko azken eguna, **ekainaren 14a**



MINTZATALDEAK

5-6 laguneko taldeak izaten dira; horiek osatzeko, kontuan hartzen ditugu parte-hartzaileen disponibilitatea, adina eta zaletasunak. Mintzataldeak bildu ahal dira kafetegian, tabernan, edo paseoan ibiltzeko... parte-hartzaileek erabakitzen dute non eta noiz, beti lagun giroan.

...eta guztia DOHAINIK!

607 609 379 / 943 360 321

www.mintzalagun.blogspot.com

usurbil@aekeus

Mintzalagunak Gara | Facebook

Sustatzaileak



Urdulaga Udala

aeek

Etumeta Euskaltegia

noa.ua

www.noa.ua.com

praktikatu





G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA

SALEROSKETA & ALOKAIURUAK

Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com

Estitxu Berasategik eta Esther Arrojeriak emango diete hasiera Usurbilgo jaiei

Herriak erabaki du jada. Aurtengoan, Erregina Kopa irabazi berri duten Bera Bera eskubalo taldeko herriko bi jokalariek, Esther Arrojeriak eta Estitxu Berasategik piztuko dute ekainaren 28an Santixabelak abiaraziko dituen suziria.

Usurbilgo Jai Batzordeak, besteak beste, Potxoenean, Kiroldegian edota Artzabalen txupinazorako hautagaiak aukeratzeko jarritako kaxetan 77 bozka bildu dira eta 43 izen ezberdin. Aipatu moduan, azkenean Bera Bera eskubalo taldeko Kalezaroko eta Zubietako jokalariek izan dira hautatuak; Esther Arrojeria eta Estitxu Berasategi hurrenez hurren. Zorionak!

Jai Batzordeak maiatzaren



Super Amara Bera Bera taldekoak, aurtengo Kopa irabazi berritan.

22an Potxoenean eginiko bilera irekian herritarren proposamenak aintzakotzat hartuta hautatu zituzten, festen hasiera girtzeko bi eskubalo jokalariek. "Jai Batzordeak herriko emakume kirolarien ibilbidea, lana, konpromisoa eta esfortzua txalotu eta omendu nahi izan ditu,

emakumeon kirolari ikusgarritasuna ematearekin batera".

Nabarmentzekoa da bestalde, txupinazorako hautagaiak aukeratzeko herritarren artean egiten den deialdi irekiak izan duen arrakasta. Urtez urte hazten doa ekimen honen parte hartzea.

Multikirol txapelketa

Aztarrিকা Usurbilgo gazte mugimenduak antolatuta, Multikirol txapelketaz gozatzeko aukera izango da frontoian asteburuotan. Kirol diziplina ezberdinetan arituko dira kirol ekimenean izena eman duten parte hartzaileak.

Mendi orientazio

ikastaroa

emakumeentzat

Patri Espinarrek gidatuta, maiatzaren 11tik ekainaren 15era, larunbatero, 9:30-13:30 artean. Lehen eta bigarren saioak Potxoenean egingo dira, gainerako lauak mendian.

Izen-ematea:

parekidetasuna@usurbil.eus
943 377 110.

"Ezka bako ihesaldia, 1. etapa", Andatzako txangoa ekainerako

Ekainaren 9rako antolatu duten txangorako izen ematea zabaldu dute:

■ Abiatzeko hitzordua: 7:00-etan autobusez, Oiardo Kiroldegi ataritik.

■ Ibilbidea: Ezka bako gotorlekua-Saigots, 27,5 km.

■ Izen ematea: 10 euroko ordainketa egin ekainaren 5a baino lehen, kontu zenbakio-tako batean:

Rural Kutxa: 30080259163005430321.
Kutxabank: 20955069071068489805.

■ Oharrak:

-Plaza mugatuak.

-Bakoitza bere bazkariaren



Mendizale talde bat, Ezka bako gotorlekurako bidean.

kargu egingo da. Bazkaria ibilbidean zehar.

-Andatza M.K.K.-k antolatutako irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko

federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. "Federatu gabe dagoenari tramieta egingo diogu, hala nahi badu. Horretarako gure web

orrian aurkitzen da egin beharrekoa, edo gurekin jarri harremanetan andatza@hotmail.com helbidean".

■ Informazio gehiago:

andatza.com

■ Antolatzailea:

Andatza M.K.K.

Pirinioetako irteera

Gogoan izan, zabalik dagoela baita, bost hirumilako egiteko asmoz, Andatza M.K.K.-k irailaren 21etik 22ra Pirinioetako Estos bailarara antolatutako txangoan izen emateko epea. Informazio gehiago: andatza.com

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukalde jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitza 78 m² eta garajeak 50m².

Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Alokairuan

Usurbilgo Kale Nagusian etxea partekatuzko lagun baten bila nabil. 26 urteko neska gazte bat naiz eta elkarbizitzeko pertsona zintzo eta arduratsua. Ekainetik aurrera sartzeko. Tel. 616 027 636

Erdialdean pisua alokatzen da; 2 gela, egongela, sukalde, komuna eta trasteleku. Dena kanpoaldera eta oso eguzkitsua. Hiru balkoi eta igogailua. Tlf: 670070562.

Etxebizitza alokairuan, Santue-

nean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsua eta garbia. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabiltza, bikote bat gara, biak lanarekin, informeak ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukalde, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik.

Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negoziatzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean.



Zorionak Aimar!

Maiatzaren 23an 9 urte bete zenituen!! Muxu handi handi bat etxekoan partez!!



Zorionak Lide eta Intza! Maiatzaren 18an zuen urtetetzea. Zorionak eta muxu handi handi bat guapisimasss!!!



Urteaskuan Lur! Etxeko txikiak 8 urte beteko ditu larunbatean. Ondo-ondo ospatu eta muxu haundi bat familiaren partetik!!

OHARRA: 2019ko ekainaren 7an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: ekainaren 3a astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4n. Banaka edo biak batera. Telefonoa: 663 031 803

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretagian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administrari-dendari baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interesatu bazeu, deitu 943 361 114 edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorpuzaldia@udarregi.eus

Zerbitzari eta sukaldari laguntzaile behar dira Aratz erretagian, info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Emakume bat, interna edo externa bezala lanean aritzeko prest, baita orduka ere. Esperientziarekin: 693000147

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Garbiketa lanak egiteko prest. 11:00etatik - 17:00ak bitartean. Tel. 603 315 126

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Interna, externa edo orduka. Garbiketa, zahar edo haurren zaintza... Paperekin eta esperientziarekin. 618 350 804.

Lan egiteko prest dagoen neska bat naiz. Zaharrak, haurrak, etxeko lanak, interna, externa, orduka... Esperientziarekin. 688 777 464.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel. 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketari, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna,

externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziarekin pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo lukeen neska bat naiz. Esperientziarekin. 663 443 736

Lan bila nabil. Pertsona helduak

edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsaldez. Urtarriletik aurrera. 671 547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketari. 67127904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Segituan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntzako oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonesez arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. Tel. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko toldo marroia eta ariketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat galdu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Iزارo

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Ingeleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Astelehenerdik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldetgia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 30 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 31 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 01 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 02 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 03 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Asteartea 04 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 05 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Maiatzak 30 - Ekainak 09

Osteguna 06 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 07 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 08 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 09 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda

maiatza/ekaina

31 ostirala

- Azken ostiraleko elkarretaratzea. 20:00etan Mikel Laboa plazan.

01 larunbata

- Sagarrondotik Sagardora ikastaro praktiko. 9:00-13:00 Potxoenean.
- Mendi orientazioari buruzko ikastaroa 9:30etatik 13:30etara Potxoenean.

02 igandea

- Musika Zuzenean: jaialdi akustikoa 19:00etan Sutegiko auditorioan. Sarrera: 10 euro.

Igande honetan, MusikaZuzenean jaialdi akustikoa Sutegiko auditorioan

MusikaZuzenean jaialdia ibiltaria da. 2019ko edizioa Usurbilgo Sutegin ospatuko da. Igande honetan arratsaldeko 19.00etatik aurrera, modu akustikoan arituko dira kantari ugari.

Hauxe da igande arratsalderako osatu duten egitaraua: Abereh, Montauk, Paxkal Irigoyen, Gartxot, Serge, Natali, Birkit, Sara Zozaya, Ane, Larra Bideak, Raitx eta Asier Beramendi. Partehartzaile bakoitzak bi kantu eskainiko ditu.

Sarrerak Aitzagan salgai

Sarrerak aldeaz aurretik eros ditzakezue Aitzagan. Egunean bertan bestela, Sutegiko leihatilan, 10 eurotan.

Iñaki Agirresaroberen argazkiak Artzabalen ikusgai

Duela hilabete batzuk, Iñaki Agirresarobe Arzallusek Zuberoako Maskaraden inguruko argazki erakusketa ipini zuen Zarautzen. Ekainaren 1etik 16ra Artzabalen egongo dira argazki horiek ikusgai.



12 kantari arituko dira, tartean Natali, eta bakoitzak bi abesti kantatuko ditu.

Musikazuzenean.com web orriak antolatu du jaialdia, Haraneko lokaletako musika taldeekin elkarlanean.

Sagastien udako kimaketaz, Aitor Etxeandiarekin

Aitor Etxeandiarekin batera, "Sagastien udako kimaketa, gatzak eta izurriteak" aztertuko dituzte. Larunbat honetan, 9:00etatik 13:00era, Potxoenean.

Izen ematea: 943 361 114 / alkartasuna@usurbil.com / alkartasuna.eus

Datozenak



Euskaraldiari buruzko bilera irekia

2020ko Euskaraldia diseinatzen hasitako bilera irekia herritar eta eragileei zuzendua dago.

- Ekainaren 4 asteartea, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Deitzailea: Euskaraldia Usurbil.

Ibai Marin eta Etxeren kontzertua

Ekainaren 7an ostiralarekin arituko dira Sutegin. Gaueko 22:00etan zabalduko dira Sutegiko ateak eta kontzertu 22:30ean hasiko da. Sarrerak 8 euroko balioa du eta egunean bertan salgai Sutegin.



Kontzertua ekainaren 7an eskainiko dute, 22:30ean hasita. Argazkian, Etxe.

txirriStra

TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

BORDATXO

taberna

Pintxo Bereziak

943 37 10 42

Zubiaurrenea 5

ZENDOIA

ENE

taberna

Kale Nagusia 35, Usurbil

31 ETXEBIZITZA BERRI UGARTONDON



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukaldia



Pertsonalizazioa

943 30 29 20

www.sukia.com

sukia

Zure etxean zaude



AURREMATRIKULA

EKAINAK

3 - 14

DOKUMENTAZIOA -

- NAN -
- Espediente akademikoa

 943364600



CIFP USURBIL LHII

**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

www.lhusurbil.eus

IMFPB **USURBIL** OLHUI

Oinarrizko Lanbide Heziketa



sukaldaritza
eta jatetxea



ile-apainketa
eta estetika



Usurbilgo Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

AURREMATRIKULA

Epea Ekainaren 3tik 14ra (biak barne).

Tokia Usurbilgo Udala

Telefonoa 943 36 04 65

Atallu. Zanziura, 3

Posta lhi@usurbil.eus

aurrematrikulazioa webgunetik egiteko aukera!
olh.usurbil.eus

- 15-17 urte bitarteko gazteak
- DBH Graduatua
- Sarrera zuzena erdi-mailako zikloetara
- Lan - munduratzea. Profesionaltasun ziurtagiria, 1